# Energia berriztagarriak

# HIZTEGIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren
*Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:

**http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac**

Argitaraldia: 1.a, 2016ko xxxx

Ale-kopurua: 1.500 ale

© argitaraldi honena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm

Azala: Concetta Probanza

Inprimaketa: XXXXXXXXXXXXXXXXXXX

ISBN: XXXXXXXXXXXXXX

Lege gordailua: XXXXXXXXX

## HITZAURREA

Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak onartutako hiztegia duzu hau. Hortaz, Batzordeak gomendatu egiten du hiztegi honetako terminologia erabiltzea.

Izan ere, Terminologia Batzordeari dagokio, besteak beste, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egitea, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea, termino lehiakideen arteko lehentasunak jartzea ponderazio-markak finkatuz, eta terminoen erabilera onestea eta gomendatzea. Terminologia Batzordeak urteko jarduketa-planetan jasotzen ditu horiek guztiak.

Hiztegi hau, Terminologia Batzordeak onartutako gainerako hiztegiak bezala, EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan (www.euskara.euskadi.eus/euskalterm) dago integratuta.

EUSKALTERM erabilera publikoko bankua da, Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina. Banku hori metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, betiere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planei jarraituz. Beraz, EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa

etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPekin lankidetzan, euskal terminologiaren normalizazioari eta zabalkundeari ekin eta eusteko.

Garaiaren arabera, gizartea aldatzen den neurrian, hizkuntzak ere aldatzen dira, bizirik badaude, behar berriei erantzuteko. Ondorioz, hizkuntza baten modernizatzearen eta eguneratzearen prozesua ez da inoiz amaitzen. Horregatik, hizkuntzaren altxor lexikoa eta terminologikoa etengabe elikatu behar dira, hizkuntza bera normalizatzeko, batetik, eta erabiltzaileen premiei erantzuteko, bestetik.

Honakoa, hiztegiak jorratzen duen eremuko erabiltzaileen oinarrizko premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, baita gure hizkuntzaren normalizazioaren eta eguneratzearen bidean urrats garrantzitsua izatea ere. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu, euskaldunok hizkuntza gero eta aberatsagoa izan dezagun.

*Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 17a*

**Patxi Baztarrika Galparsoro**
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

## HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa (www.euskara.euskadi.eus/euskalterm) eguneratzeko eta elikatzeko entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuaren barruan. Kontratua HPSk eta IVAPek finantzatu dute, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenaren bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak[1] finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehentasunen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa. Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia-batzorde atal bereziak euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da. Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia.**

---

1 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa.

**Hiztegian erabilitako ponderazio-markak:**

*(4)* Termino normalizatua / gomendatua
*(3)* Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegian erabilitako laburtzapenak:

**eu** euskara
**es** español
**fr** français
**en** English

**Sin.** sinonimoa
**Ik.** ikus

# Normalizazioa

### Batzorde teknikoa

**Olatz Ukar** (Deustuko Unibertsitatea)
**Jon Legarda** (Deustuko Unibertsitatea)
**Jokin Gorozika** (EHU)
**Federico Recart** (EHU)
**Iker Etxebeste** (UZEI)
Koordinatzailea: **Jone Agirregoikoa**
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

### Terminologia Batzordea

**Patxi Baztarrika Galparsoro**, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzorde-ataleko lehendakaria
**Eneko Oregi Goñi**, IVAPeko zuzendariordea, batzorde-ataleko lehendakariordea
**Jorge Giménez Bech**, EABko eta batzorde-ataleko idazkaria
**Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra**, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria
**Maite Imaz Leunda**, IVAPeko ordezkaria
**Andoni Sagarna Izagirre**, Euskaltzaindiaren ordezkaria
**Iker Etxebeste Zubizarreta**, Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxeko (UZEI) ordezkaria
**Xabier Alberdi Larizgoitia**, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria
**Ibon Olaziregi Salaberria**, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria
**Mertxe Olaizola Maiz**, aditua
**Joseba Erkizia Itoitz**, aditua
**Asier Larrinaga Larrazabal**, aditua
**Miel Loinaz Beristain**, aditua
**Alberto Atxabal Rada**, aditua
**Alfontso Mujika Etxeberria**, aditua

## UZEI-REN LANKIDE IZAN DIREN ADITUAK

**Fernando Plazaola**. EHU
**Gloria Etxebarria**. Ente Vasco de la Energia (EVE)
**Iñaki Boveda**. Ente Vasco de la Energia (EVE)
**Iñigo Arrizabalaga**. Telur
**Jose Luis Villate**. Tecnalia
**Martin Olazar**. EHU
**Yago Torre-Enciso**. Ente Vasco de la Energia (EVE)

# Eremu-zuhaitza

**1 Termino orokorrak**

**2 Eguzki-energia**

Eguzki-energia fotovoltaikoa
Eguzki-energia termikoa
Arkitektura bioklimatikoa

**3 Haize-energia**

**4 Energia geotermikoa**

**5 Energia hidroelektrikoa**

**6 Itsas energia**

Mareak
Itsaslasterrak
Olatuak
Gradiente termikoa
Gatz-gradientea

**7 Biomasa-energia**
(biomasaren energia ustiatzeko bideen arabera sailkatuta)

Errekuntza
Gasifikazioa
Pirolisia
Hartzidura anaerobioa
(hartzidura metanikoa eta hartzidura alkoholikoa)
Transesterifikazioa

# Aurkibidea

**Bokabularioa sailka**

1. TERMINO OROKORRAK . . . . . . . . . . . . . . . . 14
2. EGUZKI-ENERGIA. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 16
3. HAIZE-ENERGIA . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 21
4. ENERGIA GEOTERMIKOA. . . . . . . . . . . . . . 25
5. ENERGIA HIDROELEKTRIKOA . . . . . . . . . 29
6. ITSAS ENERGIA . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 33
7. BIOMASA-ENERGIA . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 37

**Euskarazko aurkibidea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 43

**Gaztelaniazko aurkibidea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 49

**Frantsesezko aurkibidea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 55

**Ingelesezko aurkibidea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 61

**Erreferentzia bibliografikoak**. . . . . . . . . . . . . . . . . . . 67

# Bokabularioa sailka

# 1. TERMINO OROKORRAK

1
**auzo-berokuntza** *(4)*
Sin. urrutiko berokuntza *(4)*
Beroa hiri-sare baten bidez banatzen duen berokuntza-sistema. Zentral batean ura berotu, eta ur bero hori hainbat eraikinetara banatzen da; erabili eta gero, ura zentralera itzultzen da, eta han berriro berotzen da.
**es** calefacción urbana; calefacción a distancia; calefacción de distrito
**fr** réseau de chaleur à distance; chauffage urbain
**en** district heating; remote heating

2
**energia berriztagarri** *(4)*
Naturan etengabe berritzen den energia-mota, agorrezina da giza eskalan. Mota hauek bereizten dira: eguzki-energia, energia eolikoa, energia geotermikoa, energia hidraulikoa, itsas energia eta biomasa-energia.
**es** energía renovable
**fr** énergie renouvelable
**en** renewable energy

3
**errendimendu** *(4)*
Sin. etekin *(3)*
Energia-mota bat beste energia-mota bateko bihurtzen duen sistema batean, bihurtutako energia erabilgarriaren eta erabilitako hasierako energiaren arteko erlazioa, orokorrean ehunekotan adierazia.
**es** rendimiento
**fr** efficacité; performance; rendement
**en** efficiency; performance

**etekin**
Ik. errendimendu

4
**kapazitate-faktore** *(4)*
Denbora-tarte batean energia-planta batek ematen duen energiaren eta denbora-tarte horretan bete-betean funtzionatzen emango lukeenaren arteko erlazioa.
**es** factor de capacidad
**fr** facteur de capacité
**en** capacity factor

5
**kogenerazio** *(4)*
**es** cogeneración
**fr** cogénération
**en** cogeneration

6
**potentzia ateratzeko sistema** *(4)*
**es** sistema de extracción de potencia
**fr** système de prise de puissance
**en** power take-off system

7
**potentzia instalatu** *(4)*
**es** potencia instalada
**fr** puissance installée
**en** installed capacity; rated capacity

8
**potentzia izendatu** *(4)*
**es** potencia nominal
**fr** puissance nominale
**en** rated power

9
**sistema hibrido berriztagarri** *(4)*
**es** sistema híbrido de energías renovables
**fr** système hybride renouvelable
**en** renewable hybrid system

10
**sorgailu** *(4)*
**es** generador
**fr** générateur
**en** generator

11
**turbina** *(4)*
**es** turbina
**fr** turbine
**en** turbine

**urrutiko berokuntza**
Ik. auzo-berokuntza

## 2. EGUZKI-ENERGIA

12
**absorbantzia** *(4)*
Sin. absortzio-faktore *(3)*; xurgapen-faktore *(3)*
Gorputz batek xurgatzen duen erradiazio-energiaren eta erradiazio erasotzailearen energiaren arteko erlazioa. Ehunekotan adierazi ohi da, eta erradiazio erasotzailearen eta erradiazioa jasotzen duen gorputzaren konposizioaren, egituraren eta tenperaturaren araberakoa izaten da.
**es** absorbancia; factor de absorción
**fr** absorptance; facteur d'absorption
**en** absorptance; absorption factor

**absortzio-faktore**
Ik. absorbantzia

13
**arkitektura bioklimatiko** *(4)*
Eraikinetan eguzki-energia kudeatzea ahalbidetzen duten arkitektura-tekniken multzoa. Teknika horiek eguzki-energia pasiboki erabiltzen dute gehienetan, eta tokian tokiko ezaugarriak hartzen dituzte kontuan (lur-sailaren berezitasunak, bertako mikroklima eta abar).
**es** arquitectura bioclimática; arquitectura solar
**fr** architecture bioclimatique
**en** bioclimatic architecture

14
**bero-irabazi** *(4)*
**es** ganancia interna; ganancia térmica interna
**fr** apport thermique
**en** heat gain

15
**dorre-motako eguzki-zentral** *(4)*
Dorre baten inguruan heliostatoak dituen eguzki-zentrala. Heliostato bakoitza eguzki-erradiazioa dorreko hargailuan etengabe islatzeko moduan orientatzen da. Horrela, galdararen barnealdetik dabilen fluidoa berotu egiten da, eta, fluido hori lurrun bihurtuz, ur-lurrun ziklo konbentzionalari ematen zaio hasiera.
**es** central solar de torre
**fr** centrale solaire à tour
**en** central receiver power plant; solar power tower

16
**eguzki-destilazio** *(4)*
**es** destilación solar
**fr** distillation solaire
**en** solar distillation

17
**eguzki-energia** *(4)*
Eguzkian gertatzen den elementu arinen fusioaren ondorioz Lurrera uhin elektromagnetiko gisa iristen den erradiazio-energia. Baliatu ahal izateko, gizakiak bero-energia bihurtzen du energia hori, eguzki-sistema aktibo zein pasiboen bidez, edo, zuzenean, energia elektriko bihurtzen du, zelula fotovoltaikoen bidez.
**es** energía solar
**fr** énergie solaire
**en** solar energy; solar power

18
**eguzki-erradiazio** *(4)*
**es** radiación solar
**fr** rayonnement solaire
**en** solar radiation

19
**eguzki-erregulagailu** *(4)*
**es** regulador solar
**fr** régulateur solaire
**en** solar regulator

20
**eguzki-frakzio** *(4)*
Denbora jakinean kontsumitutako energiatik eguzki-energiari dagokion ehunekoa.
**es** fracción solar
**fr** fraction solaire
**en** solar fraction

21
**eguzki-gezatze** *(4)*
**es** desalación solar
**fr** dessalement solaire
**en** solar desalination

22
**eguzki-instalazio fotovoltaiko** *(4)*
Eguzki-energia energia elektriko bihurtzeko eta azken hori metatu eta erabilgarri bihurtzeko gai den instalazioa.
**es** instalación solar fotovoltaica; sistema fotovoltaico
**fr** système photovoltaïque
**en** photovoltaic system; PV system; photovoltaic solar installation

23
**eguzki-instalazio termiko** *(4)*
Eguzki-erradiazioaren bidez ura edo airea berotzen dituen instalazioa.
**es** instalación solar térmica
**fr** installation solaire thermique
**en** solar thermal system

24
**eguzki-irabazi** *(4)*
**es** ganancia solar; ganancia térmica
**fr** apport de chaleur par insolation; entrée de chaleur par insolation
**en** solar gain

25
**eguzki-jarraitzaile** *(4)*
**es** seguidor solar
**fr** orienteur solaire
**en** sun tracker

26
**eguzki-kogenerazio** *(4)*
Eguzki-zentral termoelektriko batean, elektrizitatearen eta energia termiko erabilgarriaren kogenerazioa. Ekoitzitako beroaren zati bat energia termikoaren iturri gisa erabiltzen denez, prozesuaren errendimendua nabarmen handitzen da ohiko sorkuntza elektrikoari dagokionarekin alderatuta.
**es** cogeneración solar
**fr** cogénération solaire
**en** solar cogeneration

27
**eguzki-kolektore** *(4)*
Eguzki-erradiazioa hartu eta energia termiko bihurtzen duen gailua. Beroa fluido bero-eroaleari transmititzen dio, ura edo airea berotzeko. Hainbat motatako eguzki-kolektoreak daude; adibidez, kontzentratzailea, zapala, termosifoi bidezko zirkulazioduna, termikoa, bero-hodi bidezkoa, huts-hodi bidezkoa eta aire-kolektorea.
**es** colector solar
**fr** collecteur solaire; capteur solaire; accumulateur solaire
**en** collector; solar collector

28
**eguzki-labe** *(4)*
**es** horno solar
**fr** four solaire
**en** solar furnace

**eguzki-panel**
Ik. panel fotovoltaiko

29
**eguzki-sistema hibrido** *(4)*
**es** sistema solar híbrido
**fr** installation solaire hybride
**en** hybrid solar system

30
**eguzki-sistema pasibo** *(4)*
**es** sistema solar pasivo
**fr** système solaire passif
**en** passive system; passive solar system

31
**eguzki-urmael** *(4)*
**es** estanque solar; laguna solar no convectiva
**fr** bassin solaire; étang solaire; mare solaire
**en** solar pond

**eguzki-zelula**
Ik. zelula fotovoltaiko

32
**eguzki-zentral** *(4)*
Eguzki-erradiazioaren energia elektrizitatea sortzeko erabiltzen duen zentral elektrikoa.
**es** central solar
**fr** centrale solaire
**en** solar power station

33
**eguzki-zentral eoliko** *(4)*
Estalki kolektore handi batek eta erdian kokatutako tximinia formako egiturak osatutako eguzki-zentrala. Estalkiaren alboetatik sartzen den airea berotu egiten da berotegi-efektuaren eraginez, eta horren ondorioz sortutako haize-laster indartsua tximiniatik irteten da. Haizeak tximiniaren oinarrian kokatutako haize-turbinari eta sorgailuari indarrez eragiten die goranzko bidean, eta ondorioz energia elektrikoa ekoizten da.
**es** central eólico-solar; central solar de chimenea
**fr** centrale solaire éolienne
**en** solar chimney power plant; solar-wind power plant

34
**eguzki-zentral orbital** *(4)*
Lurrarekiko orbita finko batean kokatutako eguzki-zentrala. Eguzki-erradiazioa energia elektriko bihurtzen du bere zelula fotovoltaikoen bidez, eta ondoren energia elektrikoa Lurrera igortzen du mikrouhin-sortak direla medio.
**es** central solar orbital
**fr** centrale solaire orbitale; satellite électrogène
**en** orbital solar power station; satellite solar power station

35
**eguzki-zentral termoelektriko** *(4)*
Sin. zentral heliotermiko *(4)*
Ziklo termodinamiko baten bidez energia termikoa elektrizitate bihurtzen duen eguzki-zentrala. Beroa likido bat lurruntzeko erabiltzen du, eta lurrunak turbina biraraztén du. Turbinak, berriz, sorgailuari eragiten dio, eta hala energia elektrikoa ekoizten da.
**es** central solar termoeléctrica
**fr** centrale héliothermique; centrale héliothermoélectrique
**en** solar thermal power plant; solar thermal power station

36
**energia termiko** *(4)*
Energia erabilgarria ekoizteko hainbat prozesutan erabiltzen den bero-energia. Tenperatura baxuko bero-energia ur bero sanitarioa edo berokuntzan erabiltzeko beroa lortzeko baliatu ohi da, eta tenperatura altuko bero-energia, berriz, elektrizitatea ekoizteko.
**es** energía térmica
**fr** énergie thermique
**en** thermal energy

37
**fluido bero-eroale** *(4)*
Sin. fluido primario *(3)*
**es** fluido caloportador; fluido primario; fluido caloportador de calor
**fr** fluide caloporteur du circuit primaire; caloporteur; fluide caloporteur
**en** heat-transfer fluid; primary heat-transfer fluid

**fluido primario**
Ik. fluido bero-eroale

38
**Fresnel kontzentratzaile lineal** *(4)*
**es** concentrador lineal Fresnel
**fr** collecteur Fresnel linéaire
**en** Fresnel linear concentrator

39
**hargailu** *(4)*
**es** receptor
**fr** récepteur
**en** receiver

40
**heliostato** *(4)*
**es** helióstato
**fr** héliostat
**en** heliostat

41
**horma bero-metatzaile** *(4)*
**es** muro acumulador
**fr** mur accumulateur de chaleur; mur solaire passif
**en** heat storage wall; passive solar wall

42
**islagailu** *(4)*
**es** reflector
**fr** réflecteur
**en** reflector

43
**kontzentratzaile zilindriko-paraboliko** *(4)*
**es** concentrador cilindro-parabólico
**fr** collecteur cylindro-parabolique
**en** cylindrical parabolic concentrator; parabolic cylinder concentrator

44
**modulu fotovoltaiko** *(4)*
**es** módulo fotovoltaico
**fr** module photovoltaïque
**en** PV module; photovoltaic module

45
**panel fotovoltaiko** *(4)*
Sin. eguzki-panel *(3)*
Argiaren energiatik elektrizitatea ekoizteko erabiltzen diren zelula fotovoltaikoen multzoa.
**es** panel solar; panel fotovoltaico
**fr** panneau solaire
**en** solar cell panel; solar panel; photovoltaic panel

46
**Stirling disko** *(4)*
**es** disco Stirling
**fr** disque Stirling; capteur parabolique à moteur Stirling
**en** Stirling dish; dish Stirling engine system

47
**Trombe horma** *(4)*
**es** muro colector Trombe; pared colectora tipo Trombe
**fr** capteur Trombe; capteur à mur accumulateur; mur Trombe
**en** mass wall; Trombe wall; solar wall; collector-storage wall

48
**xafla xurgatzaile** *(4)*
Sin. xurgatzaile *(4)*
Eguzki-erradiazioa xurgatzen eta bero bihurtzen duen xafla beltza. Xurgatzaileak ekoitzitako beroa fluido bero-eroale bati transferitzen zaio, edo elektrizitate bihurtzen da.
**es** placa absorbente
**fr** absorbeur
**en** absorber plate; absorber

**xurgapen-faktore**
Ik. absorbantzia

**xurgatzaile**
Ik. xafla xurgatzaile

49
**zelula fotovoltaiko** *(4)*
Sin. eguzki-zelula *(3)*
Sistema fotovoltaiko baten oinarrizko unitatea. Eguzki-erradiazioa energia elektriko bihurtzen du zuzenean, eta orokorrean ez da banaka erabiltzen, modulu fotovoltaikoetan taldekatuta baizik, bakarka potentzia txikia baitu.
**es** célula solar; célula fotovoltaica; fotopila
**fr** cellule solaire; cellule photovoltaïque; photopile
**en** photovoltaic cell; solar cell; PV cell; solar photovoltaic cell

50
**zentral fotovoltaiko** *(4)*
Energia elektrikoa sortzeko panel fotovoltaiko ugari elkarri elektrikoki konektatuta dituen instalazioa.
**es** central fotovoltaica
**fr** centrale photovoltaïque
**en** photovoltaic power plant; solar farm

**zentral heliotermiko**
Ik. eguzki-zentral termoelektriko

# 3. HAIZE-ENERGIA

51
**abatz** *(4)*
**es** buje
**fr** moyeu
**en** hub

**aerosorgailu**
Ik. haize-sorgailu

52
**anemometro** *(4)*
**es** anemómetro
**fr** anémomètre
**en** anemometer

53
**dorre** *(4)*
**es** torre
**fr** tour
**en** tower

**energia eoliko**
Ik. haize-energia

54
**erabilgarritasun-faktore** *(4)*
**es** factor de disponibilidad
**fr** facteur de disponibilité
**en** availability factor

55
**errotorearen ekortze-azalera** *(4)*
**es** área de barrido del rotor; superficie barrida
**fr** surface balayée par le rotor
**en** swept rotor area

56
**gehieneko potentzia** *(4)*
**es** potencia máxima
**fr** puissance maximale
**en** maximum power

57
**gelditze-abiadura** *(4)*
Haize-sorgailu batek funtzionatzeko onar dezakeen gehieneko haize-abiadura. Haize-abiadura horretatik gora segurtasun-sistemak haize-sorgailua automatikoki gelditzea eragiten du, bai sorgailuak bai bere inguruak kalterik jasan ez dezaten.
**es** velocidad de corte; velocidad de desacoplamiento
**fr** vitesse de coupure
**en** cut-out wind speed

58
**haize-abiadura izendatu** *(iz.)* *(4)*
Haize-turbina batek dagokion potentzia maximoa (potentzia izendatua) lortzeko haizeak izan behar duen abiadura minimoa. Potentzia izendatua zenbait sistema elektriko eta/edo mekanikoren bidez kontrolatzen da.
**es** velocidad nominal del viento
**fr** vitesse nominale du vent
**en** rated wind speed

59
**haize-arrosa** *(4)*
**es** rosa de los vientos
**fr** rose des vents
**en** wind rose

60
**haize-babes efektu** *(4)*
Sin. oztopo-efektu *(3)*
**es** efecto de abrigo del viento
**fr** effet d'abri derrière l'obstacle; effet d'obstacle
**en** wind shade effect

61
**haize-energia** *(4)*
Sin. energia eoliko *(3)*
Haizearen energia zinetikoa haize-sorgailuak birarazteko erabiliz lortzen den energia elektrikoa.
**es** energía eólica
**fr** énergie éolienne
**en** eolic energy; wind energy; wind power

62
**haize-errotore** *(4)*
Haizeak eragindako indarraren eraginez haize-sorgailua higiarazten duen beso-sistema.
**es** rotor eólico
**fr** rotor éolien
**en** wind rotor

63
**haize-hodi** *(4)*
**es** tubo de viento
**fr** tube de courant
**en** stream tube

64
**haize-parke** *(4)*
Elkarri konektatutako haize-sorgailuen talde batek edo gehiagok osatutako zentral elektrikoa.
**es** parque eólico; central eólica
**fr** parc d'éoliennes; centrale éolienne
**en** wind power station; wind farm; wind-energy park; aerogenerator farm; wind power plant

65
**haize-sorgailu** *(4)*
Sin. aerosorgailu *(3)*
Haize-turbina baten eta sorgailu elektriko baten bidez haizearen energia zinetikoa energia elektriko bihurtzen duen sorgailua.
**es** generador eólico; aerogenerador
**fr** aérogénérateur
**en** wind generator; aerogenerator

66
**haize-turbina** *(4)*
Haizearen energia zinetikoa energia mekaniko bihurtzen duen makina birakaria.
**es** turbina eólica; aeroturbina
**fr** turbine éolienne
**en** wind turbine

67
**haizearen potentzia** *(4)*
**es** potencia del viento
**fr** puissance du vent
**en** power of the wind

68
**haizearen zizailadura** *(4)*
**es** cizalladura del viento
**fr** cisaillement du vent
**en** wind shear

69
**irteerako potentzia** *(4)*
**es** potencia de salida
**fr** puissance de sortie
**en** output power

70
**irteerako potentzia elektriko garbi** *(4)*
**es** potencia eléctrica neta suministrada
**fr** puissance électrique nette de sortie
**en** net electric power output

**karga maximo**
Ik. muturreko karga

71
**kaxa** *(4)*
Sin. nacelle *(3)*; makineria-kaxa *(3)*
**es** góndola; barquilla; caja de maquinaria
**fr** nacelle; carter; bâti
**en** nacelle

72
**konexio-abiadura** *(4)*
Haize-sorgailu baten haize-turbinak elektrizitate-sorgailuari potentzia ematen hasteko behar den gutxieneko haize-abiadura.
**es** velocidad de conexión; velocidad de acoplamiento
**fr** vitesse de démarrage
**en** cut-in wind speed

73
**kontrol-estrategia** *(4)*
Haize-sorgailu baten funtzionamendua baldintza klimatologikoen arabera optimizatzea eta gerta daitezkeen matxurak saihestea ahalbidetzen duen kontrol-logika. Haize-sorgailu modernoen kontrolagailu elektronikoek ehunka parametro monitorizatzen dituzte, eta logika horrek ahalik eta erantzun egokiena ematen du une horretan parametro-informazio hori guztia integratu ondoren. Monitorizatu eta honela integratu ohi diren parametroen artean errotorearen biratze-abiadura, palaren angelua, kaxaren orientazio-angelua, kaxa eta dorrea elkartzen dituzten kableen bira-kopurua, haizearen abiadura eta haizearen tenperatura daude, besteak beste.
**es** estrategia de control
**fr** stratégie de contrôle
**en** control strategy

**makineria-kaxa**
Ik. kaxa

74
**muino-efektu** *(4)*
**es** efecto colina
**fr** effet de colline
**en** hill effect

75
**muturreko karga** *(4)*
Sin. karga maximo *(4)*
**es** carga extrema
**fr** charge extrême
**en** extreme load

**nacelle**
Ik. kaxa

76
**neke-karga** *(4)*
**es** carga de fatiga
**fr** charge de fatigue
**en** fatigue load

**oztopo-efektu**
Ik. haize-babes efektu

77
**palaren angelu** *(4)*
**es** ángulo de paso
**fr** angle de calage
**en** pitch angle

78
**parke-efektu** *(4)*
**es** efecto de parque; efecto de proximidad
**fr** effet de parc
**en** park effect

79
**potentzia-errendimendu** *(4)*
Sin. potentzia-etekin *(3)*
**es** rendimiento de potencia
**fr** rendement de puissance; performance de la puissance
**en** power performance

**potentzia-etekin**
Ik. potentzia-errendimendu

80
**potentzia-koefiziente** *(4)*
Sorgailu baten potentzia elektriko garbiaren eta errotorearen ekortze-azaleratik pasatzen den haize-fluxuaren potentzia erabilgarriaren arteko zatidura.
**es** coeficiente de potencia
**fr** coefficient de puissance
**en** power coefficient

81
**potentzia-kontrol** *(4)*
Haize-sorgailuaren errendimendu maximoa lortzeko, funtzionamendua haizearen abiadurara egokitzen duen sistema.
**es** control de la potencia
**fr** contrôle de la puissance
**en** power control; power regulation

82
**potentzia-kurba** *(4)*
**es** curva de potencia
**fr** courbe de puissance
**en** power curve

83
**tunel-efektu** *(4)*
**es** efecto túnel
**fr** effet tunnel
**en** tunnel effect

84
**ubera-efektu** *(4)*
**es** efecto de la estela
**fr** effet de sillage
**en** wake effect

## 4. ENERGIA GEOTERMIKOA

85
**arroka lehor bero** *(4)*
Lur azpiko formazio geologiko iragazgaitza, geotermiaren eraginez sortua izan arren barnean urik ez duena (gainerako baliabide geotermikoek ez bezala). Arroka horien energia geotermikoa baliatzeko arroka zulatu egiten da, eta bero-trukerako sistema handi bat sortzen da arrokan artifizialki sartutako ura berotzeko.
**es** roca caliente seca
**fr** roche chaude sèche
**en** Hot Dry Rock; HDR

86
**baliabide geotermiko** *(4)*
Modu teknikoki eta ekonomikoki bideragarrian balia daitekeen energia geotermikoaren zatia.
**es** recurso geotérmico
**fr** ressource géothermique
**en** geothermal resource

87
**bat-bateko lurruneko zentral geotermiko** *(4)*
Bat-batean presio txikiagoko tangetara igaroaraziz presio altuko likido geotermikoa lurrun bihurtzen duen zentral geotermikoa. Lurrun hori turbinei eraginez energia elektrikoa ekoizteko erabiltzen da, eta bai lurrundu gabeko likidoa bai turbinetatik igaro ondoren lurruna kondentsatzean sortutako likidoa hobi geotermikoan injektatzen dira berriro.
**es** central geotérmica de vapor flash
**fr** centrale géothermique à vapeur de détente
**en** flash steam geothermal power plant

88
**begizta geotermiko** *(4)*
Eraikinak beroz hornitzen dituen sarera ura bidaltzen duen azaleko urzirkuitua.
**es** bucle geotérmico
**fr** boucle géothermique
**en** geothermal loop

89
**bero-meatzaritza sakon** *(4)*
Beroa eta energia ekoizteko sistema; bertako bero-trukagailuak zunda geotermikoen antzekoak dira, baina, zunda haiek baino sakonera handiagora iristen direnez, bestelako materialak erabiltzen dituzte.
**es** minería profunda de calor
**fr** géothermie profonde
**en** Deep Heat Mining; DHM

90
**bero-ponpa geotermiko** *(4)*
**es** bomba de calor geotérmica
**fr** pompe à chaleur géothermique
**en** geothermal heat pump

91
**bikote geotermiko** *(4)*
Baliabide geotermikoak ustiatzeko bi zundaketa erabiltzen dituen sistema. Zundaketa bat ur beroa ekoizteko erabiltzen da, eta bestea bero-trukearen ondorioz hoztutako ura akuiferora itzultzeko.
**es** doblete geotérmico
**fr** doublet de forages
**en** two well system

92
**ekoizpen-zutabe** *(4)*
Sin. ura ateratzeko zutabe *(3)*
**es** columna de impulsión; columna de producción; columna de achicamiento
**fr** colonne de production; colonne d'exhaure
**en** production string

93
**energia geotermiko** *(4)*
Lurrazalean eta Lurraren goiko mantuan metaturiko energia termikoa.
**es** energía geotérmica
**fr** énergie géothermique
**en** geothermal energy; geothermal power

94
**entalpia altuko energia geotermiko** *(4)*
Lur azpian 150 ºC-tik gorako tenperaturan dagoen uraren eta ur-lurrunaren nahastea edo ur-lurrun lehorra (urarekin nahasi gabeko ur-lurruna) baliatuz ekoizten den energia geotermikoa. Energia elektrikoa ekoizteko erabili ohi da.
**es** energía geotérmica de alta entalpía
**fr** énergie géothermique haute enthalpie
**en** high enthalpy geothermal energy

95
**entalpia baxuko energia geotermiko** *(4)*
30 ºC eta 100 ºC arteko tenperatura duten baliabide geotermikoak erabiliz lortutako energia geotermiko mota. Berokuntza- eta klimatizazio-sistemetan eta hirietako ur bero sanitarioaren sistemetan erabiltzen da batez ere, baita zenbait prozesu industrialetan ere. Fluido geotermikoaren energia bero-ponpa bidezko trukagailuen bitartez baliatzen da.
**es** energía geotérmica de baja entalpía
**fr** énergie géothermique basse enthalpie
**en** low enthalpy geothermal energy

96
**entalpia ertaineko energia geotermiko** *(4)*
100 ºC eta 150 ºC arteko tenperatura duten baliabide geotermikoak erabiliz lortutako energia geotermiko mota. Baliabide geotermiko horiek zuzenean erabil daitezke (hirietako edo industriako sistemetan edo prozesuetan beroa edo hotza emateko), baita energia elektrikoa ekoizteko ere, bitarteko gisa fluido lurrunkor bat darabilen prozesu baten bidez.
**es** energía geotérmica de entalpía media
**fr** énergie géothermique moyenne enthalpie
**en** medium enthalpy geothermal energy

97
**erabilera zuzen** *(4)*
Ur geotermikoa eta haren energia termikoa lehendabizi elektrizitate bihurtu gabe erabiltzea, eraikinak berotzeko zein hozteko, elikagaiak hazi zein prestatzeko, prozesu industrialetarako eta bainuetxeetarako.
**es** uso directo
**fr** usage direct
**en** direct use

98
**fluido geotermiko** *(4)*
**es** fluido geotérmico
**fr** fluide géothermique
**en** geothermal fluid

99
**geotruke** *(4)*
Beroa baliatzea ahalbidetzen duen sistema, lur azpian 100 m-ko sakoneraraino dagoena. Bero-trukerako zirkuitua eta bero-ponpa bat ditu osagai. Geotrukearen bidez lortutako beroa berokuntzarako erabiltzen da neguan, eta airea girotzeko udan.
**es** geointercambio
**fr** géoéchange
**en** geoexchange

100
**gradiente geotermiko** *(4)*
**es** gradiente geotérmico
**fr** gradient géothermal
**en** geothermal gradient

101
**gradu geotermiko** *(4)*
1 ºC-ko tenperatura-igoera izateko lurrazalean sakondu behar den metro-kopurua.
**es** grado geotérmico
**fr** degré géothermique
**en** geothermal degree

102
**hobi geotermiko** *(4)*
Barnean baliabide geotermikoa duen lurrazaleko eremua. Hobi geotermikoak energia elektrikoa edo energia termikoa lortzeko balia daitezke, bertako fluido geotermikoaren tenperaturaren arabera.
**es** yacimiento geotérmico; almacén geotérmico
**fr** gisement géothermique
**en** geothermal reservoir

103
**injekzio-putzu** *(4)*
**es** pozo de inyección
**fr** puits d'injection
**en** injection well

104
**iragazte-ohantze** *(4)*
**es** lecho filtrante
**fr** massif filtrant
**en** gravel packing

105
**kaptadore lurperatu** *(4)*
Lur azpiko beroa zuzenean baliatzea ahalbidetzen duen gailua. Orokorrean dentsitate handiko polietilenozko hodiak izaten dira, eta barnean lurreko edo lur azpiko bero-energia hartzen duen fluido baten begizta formako fluxua izaten dute. Lurrean horizontalki zenbait dezimetroko sakoneran sartuta daudenei kaptadore horizontal deritze, eta zenbait hamarka metroko sakoneran bertikalki sartutakoei, berriz, zunda geotermiko.
**es** captador enterrado; sensor enterrado
**fr** capteur enterré
**en** buried collector

106
**lurrun lehorreko zentral geotermiko** *(4)*
Bero geotermikoaren ondorioz sortutako ur-lurruna turbina bati eraginez energia elektrikoa ekoizteko erabiltzen duen zentral geotermikoa. Ur-lurrun geotermikoa urarekin nahasita ez dagoenean bakarrik balio du, eta, kasu horiek urriak direnez, teknologia honen aplikazioa nahiko mugatua da.
**es** central geotérmica de vapor seco
**fr** centrale géothermique à vapeur sèche
**en** dry steam geothermal power plant

107
**oso entalpia baxuko energia geotermiko** *(4)*
10 ºC eta 30 ºC arteko tenperatura duten baliabide geotermikoak erabiliz lortutako energia geotermiko mota. Normalean berokuntza- eta klimatizazio-sistemetan erabiltzen da, bero-ponpen bidez.
**es** energía geotérmica de muy baja entalpía
**fr** énergie géothermique très basse enthalpie
**en** very low enthalpy geothermal energy

**ponpatze-test**
Ik. probako ponpatze

108
**probako ponpatze** *(4)*
Sin. ponpatze-test *(3)*
**es** ensayo de bombeo; prueba de producción
**fr** pompage d'essai; tests de pompage
**en** pumping test

**ura ateratzeko zutabe**
Ik. ekoizpen-zutabe

109
**zentral geotermiko** *(4)*
Energia elektrikoa edo bero-energia ekoizteko ur-lurrun geotermikoa edo bero geotermikoa baliatzen dituen instalazioa. Baliabide geotermikoaren tenperaturaren arabera entalpia baxuko, entalpia ertaineko eta entalpia altuko zentralak bereizten dira. Entalpia baxukoek bero-energia bakarrik ekoizten dute, entalpia ertainekoek bero-energia edo energia elektrikoa eta entalpia altukoek, berriz, energia elektrikoa.
**es** central geotérmica
**fr** centrale géothermique
**en** geothermal power station; geothermal power plant

110
**ziklo bitarreko zentral geotermiko** *(4)*
Fluido geotermikoaren beroa lurruntze-tenperatura baxuagoko beste fluido bat lurrunarazteko erabili eta horrela lortutako lurruna turbina batean hedaraziz energia elektrikoa ekoizten duen zentral geotermikoa. Baliabide geotermikoa ur-lurruna eraginkortasunez erabiltzeko behar adina bero ez denean erabiltzen da, edo likido geotermikoaren ezpurutasunak direla-eta bat-bateko lurruneko zentrala erabili ezin denean. Bestalde, bat-bateko lurruneko zentraletako lurrun-soberakina ziklo bitarreko zentraletan balia daiteke.
**es** central geotérmica de ciclo binario
**fr** centrale géothermique à cycle binaire
**en** binary cycle geothermal power plant

111
**zunda geotermiko** *(4)*
**es** sonda de intercambio geotérmico
**fr** sonde géothermique
**en** geothermal probe

# 5. ENERGIA HIDROELEKTRIKOA

**antapara**
Ik. deribazio-dike

112
**arrain-eskailera** *(4)*
**es** escala de peces
**fr** échelle à poissons
**en** fish ladder

113
**azaleko metaketa** *(4)*
Lurrazalean mantentzen edo lurrean barneratzen den euri-uraren zatia.
**es** almacenamiento superficial
**fr** rétention superficielle
**en** surface detention

114
**deribazio-dike** *(4)*
Sin. antapara *(4)*
**es** dique de derivación
**fr** digue de déviation; barrage de dérivation
**en** diversion weir; diversion dam

**deribazio-kanal**
Ik. kanal hidrauliko

115
**ekipamendu elektromekaniko** *(4)*
**es** equipamiento electromecánico
**fr** équipement électromécanique
**en** electro-mechanical equipment

**ekipamendu-emari**
Ik. emari izendatu

116
**emari izendatu** *(4)*
Sin. ekipamendu-emari *(3)*
Instalazio hidroelektriko baten osagaiak (batez ere kanal hidraulikoa, hodi behartua eta turbinak) diseinatzeko erreferentziatzat hartutako emaria.
**es** caudal nominal; caudal de equipamiento
**fr** écoulement nominal
**en** nominal flow

117
**energia bermatu** *(4)*
**es** energía firme
**fr** énergie garantie
**en** firm energy

118
**energia hidrauliko** *(4)*
**es** energía hidráulica
**fr** énergie hydraulique
**en** hydropower; water power; hydraulic power

119
**energia hidroelektriko** *(4)*
Mugimenduan dagoen uraren energia zinetikoa edo altuera jakin batean dagoen uraren energia potentziala turbina hidraulikoen bidez baliatuz ekoitzitako energia elektrikoa.
**es** energía hidroeléctrica
**fr** énergie hydroélectrique
**en** hydroelectric power; hydroelectric energy

120
**epe laburreko metaketa** *(4)*
Urtegi batean ura biltzea, energia hidroelektrikoa puntako orduetan bakarrik ekoizteko.
**es** almacenamiento a corto plazo
**fr** stockage à court terme
**en** short-term storage

121
**epe luzeko metaketa** *(4)*
Urtegi batean ura biltzea, ekarpenen eta eskarien aldeei luzaro aurre egiteko.
**es** almacenamiento a largo plazo
**fr** stockage à long terme
**en** long-term storage

122
**erretentzio bidezko metaketa** *(4)*
Sin. erretentzio-metaketa *(3)*
Uraren aldi baterako metaketa. Mota honetako metaketa azalekoa izan daiteke edo emaria handituz gerta daiteke.
**es** almacenamiento de retención
**fr** emmagasinement temporaire
**en** detention storage

**erretentzio-metaketa**
Ik. erretentzio bidezko metaketa

123
**fluxuaren kudeaketa** *(4)*
**es** gestión del flujo
**fr** gestion des flux
**en** flow management

124
**gailur** *(4)*
**es** coronación
**fr** crête
**en** crest

125
**gainezkabide** *(4)*
**es** aliviadero
**fr** déversoir
**en** spillway

126
**haraneko metaketa** *(4)*
Ur-lasterren edozein zatitan (ibilguan zein uraldiak hartutako lurrean) gertatutako ur-metaketa.
**es** almacenamiento de valle
**fr** emmagasinement dans la vallée
**en** valley storage

127
**hargune-obra** *(4)*
**es** obra de toma
**fr** œuvres de prise
**en** intake works

128
**hodi behartu** *(4)*
**es** tubería forzada
**fr** conduite forcée
**en** penstock; forced pipe

129
**irteerako kanal** *(4)*
**es** canal de salida
**fr** canal de fuite
**en** tailrace

130
**isatseko ur** *(4)*
**es** agua de cola
**fr** eau d'aval
**en** tailwater

131
**ixte-elementu** *(4)*
Sin. ixte-organo *(3)*
**es** órgano de cierre de la turbina
**fr** appareil d'arrêt; appareil de fermeture; appareil de retenue
**en** closing element; closing organ

**ixte-organo**
Ik. ixte-elementu

132
**kabitazio** *(4)*
**es** cavitación
**fr** cavitation
**en** cavitation

133
**kanal hidrauliko** *(4)*
Sin. deribazio-kanal *(4)*
**es** canal hidráulico; canal de derivación
**fr** canal d'amenée
**en** headrace

134
**karga-ganbera** *(4)*
**es** cámara de carga
**fr** bassin d'admission; chambre d'admission
**en** forebay

135
**kaxa espiral** *(4)*
**es** caja espiral
**fr** bâche d'une turbine
**en** scroll case

136
**minizentral hidroelektriko** *(4)*
Sin. zentral hidroelektriko txiki *(3)*
10 MW-etik beherako potentzia duen zentral hidroelektrikoa, ur lasterrekoa edo urtegi-oinaldekoa.
**es** minicentral hidroeléctrica
**fr** petite centrale hydroélectrique; mini-centrale hydraulique
**en** small hydropower plant; small hydropower station; small hydraulic plant

137
**ponpatze bidezko metaketa** *(4)*
Haran-orduetan ura presaren azpialdetik urtegira ponpatuz puntako orduetan elektrizitate-ekoizpena handiagoa izatea ahalbidetzen duen zentral hidroelektriko baten eskema hidraulikoa. (Elektrizitate-eskaera minimoa da haran-orduetan, eta maximoa puntako orduetan.)
**es** almacenamiento por bombeo
**fr** accumulation par pompage
**en** pumped storage

138
**presa** *(4)*
**es** presa
**fr** barrage
**en** dam

**turbina hidrauliko**
Ik. ur-turbina

139
**turbina-gurpil** *(4)*
**es** rueda giratoria
**fr** roue de turbine
**en** runner wheel

140
**turbina-xurgagailu** *(4)*
**es** turbina de aspiración
**fr** aspirateur de turbine; aspirateur
**en** draft tube

141
**uhate zuzentzaile** *(4)*
**es** compuerta directriz
**fr** directrice
**en** wicket gate

142
**ur lasterreko zentral** *(4)*
Ur lasterreko ibaietatik uraren parte bat desbideratu eta turbinan zehar pasarazi ondoren ibaira beste puntu batean itzultzen duen zentral hidroelektrikoa. Urik metatzen ez denez, mota honetako zentralek ez dute presarik.
**es** central de agua fluyente; central hidroeléctrica en derivación
**fr** centrale au fil de l'eau
**en** diversion plant; run-of-river plant; diverted flow power station

143
**ur-jauzi garbi** *(4)*
**es** salto neto
**fr** chute nette
**en** net head

144
**ur-jauzi gordin** *(4)*
**es** salto bruto
**fr** chute brute
**en** gross head

145
**ur-turbina** *(4)*
Sin. turbina hidrauliko *(4)*
**es** turbina hidráulica
**fr** turbine hydraulique
**en** water turbine; hydraulic turbine

146
**urtegi-oinaldeko zentral** *(4)*
**es** central hidroeléctrica de pie de presa
**fr** centrale au pied du barrage
**en** impoundment plant

147
**zentral hidroelektriko** *(4)*
Energia hidroelektrikoa elektrizitatea ekoizteko baliatzen duen instalazioa.
**es** central hidroeléctrica; central hidráulica
**fr** centrale hydroélectrique
**en** water power station; hydroelectric power station; hydroelectric power plant; hydroelectric plant; hydro-electric power station

**zentral hidroelektriko txiki**
Ik. minizentral hidroelektriko

# 6. ITSAS ENERGIA

148
**alderantzizko elektrodialisi** *(4)*
Mintz ioi-hautakorrak erabiliz itsasoko uraren eta ur gezaren arteko presio osmotikoaren aldea elektrizitate (zehazki, korronte zuzen) bihurtzen duen teknika. Presio atzeratuko osmosiaren teknikak ere itsasoko uraren eta ur gezaren arteko presio osmotikoaren aldea baliatzen du.
**es** electrodiálisis inversa
**fr** électrodialyse inverse
**en** reverse electrodialysis; RED

149
**atenuadore** *(4)*
Ardatz nagusia olatuen hedatze-norabidean ezarria izanik olatuen energia pixkanaka jaso eta energia elektriko bihurtzeko baliatzen duen gailua.
**es** atenuador; captador de oleaje tipo atenuador
**fr** affaiblisseur; atténuateur
**en** attenuator

150
**azaleko ur** *(4)*
**es** aguas poco profundas
**fr** eaux peu profondes
**en** shallow water

151
**energia-periodo** *(4)*
Sin. Te *(4)*
Itsasoaren egoerari dagokion energia berbera izanik maiztasun bakarra duen olatu baten periodoa. Kontuan hartu behar da benetako olatuak periodo eta anplitude desberdinak dituzten olatu gainezarri gisa deskriba daitezkeela.
**es** periodo energético; Te
**fr** periode énergetique; Te
**en** energy period; Te

152
**gainezkatze-gailu** *(4)*
Olatuen indarra kontzentratuz energia elektrikoa ekoizteko kostan ezartzen den gailua. Ebakidura konbergenteko kanal formako egiturak, goialdean ezarritako depositauak eta turbina batek osatzen dute. Olatuaren eraginez urak hiru bat metro gora egiten du kanal formako osagaiaren barnean, eta goiko depositauan bildu ondoren itsasora itzultzen denean uraren energia potentziala energia elektrikoa ekoizteko baliatzen da.
**es** dispositivo de rebosamiento
**fr** dispositif de déversement
**en** overtopping device

153
**gatz-gradientearen energia** *(4)*
Ur gezaren eta ur gaziaren arteko mugan egoten den potentzial elektrokimikoa. Zuzenean energia elektriko bihur daiteke.
**es** energía del gradiente salino
**fr** énergie des gradients de salinité
**en** salinity gradient energy

**IBEB**
Ik. itsasoko bero-energiaren bihurketa

154
**itsas energia** *(4)*
Itsasoaren ezaugarri fisikoen edo kimikoen alderdiren bat baliatuz lor daitekeen energia. Itsas energia zenbait motatakoa izan daiteke baliatutako ezaugarriaren arabera; hala, itsas energiaren barnean marea-energia, olatuen energia, itsasoko bero-energia, gatz-gradientearen energia edo itsaslasterren energia bereizten dira.
**es** energía del mar; energía oceánica
**fr** énergie marine
**en** ocean energy; sea energy

155
**itsas energiako zentral** *(4)*
Itsas energia baliatzen duten mota bereko zenbait bihurgailu-talde sistema elektriko berean ezarrita dituen zentrala.
**es** central de energía marina
**fr** centrale d'énergie marine
**en** marine energy park

156
**itsaslaster** *(4)*
**es** corriente marina
**fr** courant marin
**en** sea current; marine current

157
**itsasoaren egoera** *(4)*
**es** estado de mar
**fr** état de la mer
**en** sea state

158
**itsasoko bero-energiaren bihurketa** *(4)*
Sin. IBEB *(4)*
Itsasoko azaleko eta sakoneko geruzen arteko tenperatura-aldea Rankineren ziklo organikoaren bidez energia elektriko bihurtzeko baliatzen duen prozesua. Fluidoa lurrundu egiten da azaleko uraren energia termikoaren eraginez, eta turbina bat zeharkatu ondoren kondentsatu egiten da, geruza sakonetako ur hotzaren eraginez. IBEB sistema irekia, itxia edo hibridoa izan daiteke.
**es** conversión de la energía térmica de los océanos; CETO
**fr** conversion de l'énergie thermique des océans; CETO
**en** ocean thermal energy conversion; OTEC

159
**marea-energia** *(4)*
Itsasgorako eta itsasbeherako itsas mailaren aldaketak baliatuz ekoizten den energia.
**es** energía mareomotriz; energía de las mareas
**fr** énergie marémotrice; énergie des marées
**en** tidal energy; tidal power; ocean tidal power; tidal-range energy

160
**marea-energiaren bihurgailu** *(4)*
**es** convertidor de energía de las mareas; convertidor de energía mareomotriz
**fr** convertisseur d'énergie marémotrice
**en** tidal energy converter; TEC

161
**marea-presa** *(4)*
Badia edo estuarioetan mareak gora egiten duenean sartzen den ura biltzeko egitura, horretarako egindako obrek eta estuarioaren ertzak osatua.
**es** presa de mareas
**fr** barrage de marée
**en** tidal dam; tidal barrage

162
**olatu-altuera adierazgarri** *(4)*
**es** altura de ola significante
**fr** hauteur significative des vagues; hauteur de houle significative
**en** significant wave height; spectral wave height

163
**olatu-energiaren bihurgailu** *(4)*
**es** convertidor de energía de las olas
**fr** convertisseur d'énergie houlomotrice
**en** wave energy converter; WEC

164
**olatuen bat-bateko kaptadore** *(4)*
Olatuaren hedatze-norabidearekiko kokapen perpendikularrean ezarritako kaptadorea. Olatuaren frontearekiko paralelo ipintzen da, eta olatua bertatik pasatzen den unean hartzen du haren energia.
**es** captador de oleaje tipo totalizador
**fr** terminateur
**en** terminator device; terminator

165
**olatuen energia** *(4)*
Olatuak osatzen dituzten ur-masek hartutako altueraren ondoriozko energia potentzialaren eta masa horien abiaduraren ondoriozko energia zinetikoaren batura. Olatuen energia batez ere haizearen eraginez sortzen da.
**es** energía del oleaje; energía undimotriz; energía olamotriz
**fr** énergie de la houle; énergie des vagues; énergie houlomotrice
**en** wave energy

166
**olatuen espektro direkzional** *(4)*
**es** espectro direccional del oleaje
**fr** spectre directionnel de la houle
**en** directional wave spectrum; wave directional spectrum

167
**potentzia-matrize** *(4)*
**es** matriz de potencia
**fr** matrice de puissance
**en** power matrix; power surface

168
**presio atzeratuko osmosi** *(4)*
Itsasoko uraren eta ur gezaren arteko presio osmotikoaren aldea presio hidrostatiko bihurtuz gatz-gradientea energia ekoizteko baliatzen duen teknika. Alderantzizko elektrodialisiko teknikak ere itsasoko uraren eta ur gezaren arteko presio osmotikoaren aldea baliatzen du.
**es** osmosis de presión retardada
**fr** pression osmotique retardée
**en** pressure-retarded osmosis; PRO

**Te**
Ik. energia-periodo

169
**ur sakon** *(4)*
